

24

EUSKADIKO
ORKESTRA

25

SCHUBERT



STRAUSS

6 MAIATZA | 19:30

Pamplona / Iruña | BALUARTE

euskadikoorkestra.eus

EUSKADIKO ORKESTRA

KONTZERTINOA / CONCERTINO

Franz-Markus Siegert

I BIOLINAK / VIOLINES I

Xabier de Felipe (1)
Irene Echeveste (4)
José Ignacio Aizpiri
Immaculada Aramburo
David Carmona
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Óscar López
Maite Menéndez
Larraitz Oiartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (4)
Maddi Arana
Marie Héloïse Arbus
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Ricardo Ruiz
Igor Torre

BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Monika Mazur (4)
Maite Abasolo
Esther Alba
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Sergio Montero
Yann Seyrac

BIOLONTXELOAK

VIOLONCHELOS
Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (4)
Natalia Díaz
Jon Larraz
Beatrix Linares
Pascale Michaud
Ian Swedlund

KONTRABAXUAK

CONTRABAJOS
Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Marc Sirera (4)
Victor Bogdanov
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent
Guangyao Zhao

FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Aliroi (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

OBOEAK / OBOES

Óscar Diago (2)
Javier Lecumberri (2)
Pascal Laffont
Hervé Michaud

KLARINETEAK

CLARINETES
Luis Cámara (2)
Juan Navarro (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufiaurre

FAGOTAK / FAGOTES

François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix

TRONPAK / TROMPAS

Marcos Cruz Pardeiro (2)
Adrián García Carballo (2)
Cristian Palau (2)
Jean-Luc Casteret
Álvaro Parrón (5)
Xabier Sarasa
Marianne Tauzin

TRONPETAK / TROMPETAS

Jesús Castillo
Miguel Echepare

TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Sergio Manteiga
Daniel Ruibal

TUBA

Óscar Abella (2)

TINBALAK ETA PERKUSIOA

TIMBALES Y PERCUSIÓN
Igor Arostegui (2)
Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Alba Rodríguez (3) (5)
Xabier Peña

HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)

(1) Kontzertinoaren laguntzailea /
Ayuda de concertino

(2) Bakarlaria / Solista

(3) Bakarlari-laguntzailea /
Ayuda de solista

(4) Lehen tutia / Primer tutti

(5) Aldi baterako kontratazioa /
Contratación temporal




Agurra / Despedida

43 urtez Euskadiko Orkestraren klarinetejole izan ostean, Juan Navarrok azken denboraldia du honakoa. Hasiko duzun ibilbidea zorionekoa izatea opa dizugu eta bihotzez eskertzen orkestraren garapenari egindako ekarpena.

Después de 43 años como clarinetista de Euskadiko Orkestra, esta es la última Temporada de Juan Navarro. Te deseamos todo lo mejor en esta nueva etapa y te agradecemos de corazón tu contribución al desarrollo de la orquesta.

DINIS SOUSA
Zuzendaria ° Director

SUHAR KORUA
Abesbatza ° Coro



SCHUBERT / STRAUSS

EGITARAUA ^ PROGRAMA

I

FRANZ SCHUBERT (1797-1828)

Canción nocturna en el bosque, para coro de hombres y cuatro trompas,
D.913 [6']*

LUCIANO BERIO (1925-2003)

Franz Schuberten sinfonía baterako (D.936a) zirriborroetan oinarritua /
Basado en bocetos de Franz Schubert para una sinfonía (D.936a)
Argitaletxea / Edita: Universal-Edition A.G.

Rendering [35']*

- I. Allegro
- II. Andante
- III. Scherzo

II

RICHARD STRAUSS (1864-1949)

Los momentos del día, TrV 256, Op.76 [11']*
Argitaletxea / Edita: E. Thomi-Berg Musikverlag

- IV. La noche

RICHARD STRAUSS (1864-1949)

El caballero de la rosa, TrV 227, Op.59. Suite [22']
Argitaletxea / Edita: Boosey & Hawkes, Inc.

Chopin, Debussy, Bartok... Gaua eta haren misterioak inspirazio-iturri izan dira konpositore ugarirentzat. **Dinis Sousak**, Royal Northern Sinfoniaren zuzendariak (Erresuma Batuko ganbera-orkestra ezagunenetako bat) gaueko tematika duten bi lan aukeratu ditu **Suhar Korua** bikainarentzat. Abesbatza hori izan zen 2023ko edizioan Tolosako Abesbatza Lehiaketaren irabazole absolutua. Haien ahotsek ondoan lau tronpa izango dituzten *lied* koral batekin emango diote hasiera gau-emanaldiari. Beethovenen heriotzaren lehen urteurrenarekin lotuta **Franz Schubertek** konposatu zuen **Gaueko abestia basoan**. Lan horrek, J.G. Seidlen poema bat abiapuntutzat hartuta, gauari goresprena egiten dio.

Luciano Berio italiarrak kultura zabala zuen eta, askotan, beste musika batzuekin lotutako erreferentziak sartzen zituen bere sorkuntza-lanetan. Halaxe egin zuen bere lan abangoardistenetan gorde antzean, baina oso esplizituki geroago bere katalogo osoko lanik ezagunenak bihurtu ziren beste konposizio heterogeneoago batzuetan: 1964ko *Folk Songs*, konposizio teknika garaikidetarako esperimentazio esparru bihurtzen diren mundu osoko abesti herrikoien bilduma, eta 1968ko *Sinfonia*. Azken horren hirugarren mugimendua, hainbat egileren (Mahler, Debussy, Ravel eta Berg, besteak beste) musiken arteko *collage* bat da.

Gaurkoan, lehendik existitzen ziren sorkuntza-lanetatik abiatuta, poetika propioaren bilaketa Berio urrutien iritsi zen lana entzuteko aukera izango dugu. Hain zuzen ere, **Rendering ricomposizione** gisa aurkezten da eta, horregatik, esku-programan, egileak bi direla jartzen du: Berio eta jatorrizko materialaren egilea: Schubert. Izan ere, Berio, kasu honetan, ez da melodia bat aipatzera edo beste lan baten zati bat sartzera mugatu. Hori beharrean, **Schubert** 1828ko azaroan hil zenean (31 urte besterik ez zituela) lantzen ari zen sinfonia proiektuaren berreraikuntza osoa egin du.

Beriok azaldu zuenez, «bere bizitzako azken asteetan, Franz Schubertek hainbat zirriborro sortu zituen *Hamargarren Sinfonia* prestatzeko. Zirriborro horiek nahiko konplexuak eta oso ederrak dira, eta Schubert Beethovenen eraginetik aldentzen ari ziren bide berri haien zantzuk erakusten dituzte. [...] Zirriborroek, Schubertek ia piano eran utzi zituen bezala, noizbehinka adierazpen instrumentalak dituzte, baina batzuetan ia takigrafiatuta daudela dirudi, eta osatu egin behar izan nituen, batez ere zati baxu eta barnekoenetan. Orkestrazioak *Amaitu gabeari jarraitzen* dio, eta nahiz eta Schuberten kolore nabarmena mantentzen duen, musikaren garapenean dauden pasarte labur batzuetan, joera Mendelssonherantz bideratzen dela dirudi, eta orkestrazioak modu naturalean islatzen du. Gainera, bigarren mugimenduaren adierazpen-giroa ikaragarria da: Mahlerren espirituaaz blaituta dagoela dirudi».

Hori oinarritzat hartuta, Beriok *Renderingen* egindako lanak ez du zerikusirik kontzertu-aretoetan entzun ohi ditugun beste berreraikuntza askorekin, hala nola Mozarten *Requiema*, Süßmayr ikasleak osatu zuena; Mahllerren *10. Sinfonia*, Deryck Cooke musikologoaren bertsioan (Berthold Goldschmidtek eta David eta Colin Matthewsek osatu eta zuzendu zuten ia lau hamarkada iraun zuen prozesuaren baitan); edo Brucknerren *Bederatzigarren Sinfonia*. Haren laugarren mugimendua, Nicola Samalek gidatutako talde batek berreraiki zuena, Euskadiko Orkestrak interpretatu zuen 2020 urtearen hasieran. Adibide horiek guztiekin ondo ezarritako helburu bat dute: konpositorearen estiloari ahalik eta leialen izatea, haren teknikak

eta konposizio-keinuak xehetasun osoz imitatuz, obra Mozart, Mahler edo Brucknerren sorkuntza osoa balitz bezala entzun ahal izateko. Bainan *Renderingen*, Beroik Schuberten zirriborroak «berrezarri» nahi izan zituen, ez sinfonia berreraiki edo amaitu; eta, egindako hurbilketa-lana uler dezagun, freskoen zaharberritzetan modernoa aipatzen du. Horren helburua izaten da antzinako koloreak berpiztea, denborak eragindako kaltea disimulatzen saiatu gabe, sarritan pinturan espazio hutsak utziz.

«Zirriborro baten eta hurrengoaren arteko espazio hutsetan, ehun konektibo mota bat sortzen da, etengabe desberdina eta aldakorra, pianissimoa eta urruna beti, Schuberten azken lanetako oroitzapenekin nahastua (*Pianorako sonata si bemolean*, *Pianorako trioa si bemolean*, eta abar) eta zirriborro horien zatietan oinarrizutako testura polifonikoek zeharkatua», azaldu zuen konpositore italiarrak. «“Zementu” musical horrek zirriborro baten eta bestearen arteko etenak eta hutsuneak komentatzen ditu, beti ere zeleta baten soinuak iragarrita, eta “ia soinurik gabe” eta adierazpenik gabe interpretatu behar da». Beroik lortzen duen efektua edertasun poetiko bitxi, baina liluragarri batena da, eta Schuberten Erromantizismo hasiberriaren eta XX. mendearren bigarren erdialdeko abstrakzio abangoardistaren arteko etengabeko jauziak hautematen dira. Horri guztiari esker, *Rendering* Nikolaus Harnoncourtak 1989an Amsterdamgo Concertgebouw Orkestra zuzentzen zuela estreinatu zuenetik, postmodernismo musicalaren lanik enblematikoenetako bat bihurtu da.

Emanaldia osatzeko, **Richard Straussen** bi orrialde izango dira entzungai. Horietako lehena gauarekin eta Schubertekin lotua dago, Straussek ***Eguneko uneak*** izeneko lana konposatu baitzuen Vienako Schubert Elkarteak hala eskatuta. Lan hura 1928an estreinatu zuten, haien patroiaren heriotzaren mendeurrenean. Gizezkoen abesbatzarako eta orkestrarako kantata txiki hau osatzen duten lau abestiak Joseph Eichendorf poeta erromantikoaren testuetan oinarrituta daude eta, azkena, **Gaua**, Norman del Marrek honela deskribatzen du: «nokturno baketsu eta erakargarria da. Tronpa solo batekin hasten da eta txorien kantuz eta orkestrazio atmosferikoz betetako erdiko atala du. Konposizioa azken estrofaren errepikapenarekin amaitzen da eta ereserki baten modukoa dela esan dezakegu».

Amaitzeko, Straussek 1909 eta 1910 artean konposatu zuen ***Arrosaren zalduna*** operaren suitea entzuteko aukera izango dugu. Lan horrekin eman zion behin betiko bukaera *Salomé* (1905) eta *Elektra* (1908) operei jaiotza eman zien etapa modernistari. *Arrosaren zalduna* XVIII. mendeko Viena hirian girotuta dago, eta partitura osoan zehar balsa da protagonista anakronikoa. Estreinaldian arrakasta lortu zuen bere melodia ederrengatik, orkestrazioaren edertasunagatik eta antzinako estiloa imitatzean erakusten duen dotoreziagatik, eta honi esker opera Straussen bizitzan zehar bere sorkuntza ezagunenetako bat bilakatu zen. Operaren musika behin baino gehiagotan egokitzen zen, baita Robert Wiene-k *Das Cabinet des Dr. Caligari* lanaren ondoren zuzendu zuen film mutu bat (*Der Rosenkavalier*, 1925) girotzeko ere. Bainan Strauss New Yorkeko Filarmonikoko zuzendariak, Artur Rodzinskik, orkestrarekin batera 1944an sortu eta estreinatu zuen suitearekin bakarrik geratu zen erabat pozik eta, gaur eskainiko den hori bera da, hain zuzen ere.

Desde Chopin a Debussy o Bartok, la noche y sus misterios han sido fuente de inspiración para muchos compositores. **Dinis Sousa**, titular de la Royal Northern Sinfonia, una de las más prestigiosas orquestas de cámara del Reino Unido, ha seleccionado dos obras de temática nocturna para el magnífico **Suhar Korua**, ganador absoluto del Certamen Coral de Tolosa en su edición de 2023. Sus voces darán inicio a la velada con un *lied coral* acompañado por cuatro trompas: **Canción nocturna en el bosque**, que **Franz Schubert** compuso para el primer aniversario de la muerte de Beethoven y que, partiendo de un poema de J. G. Seidl, eleva una alabanza a la noche.

El italiano **Luciano Berio** fue un hombre de inmensa cultura que a menudo introducía referencias a otras músicas en sus propias creaciones. Lo hizo de forma velada en sus piezas más vanguardistas, pero muy explícitamente en otras composiciones más heterogéneas que se convertirían en las más célebres de su catálogo: las *Folk Songs* de 1964, una colección de canciones populares de todo el mundo que se convierten en campo de experimentación para diversos acercamientos compositivos contemporáneos; y la *Sinfonía* de 1968, cuyo tercer movimiento es un collage de músicas de Mahler, Debussy, Ravel y Berg, entre otros.

Hoy escucharemos el ejemplo con el que Berio llegó más lejos en su búsqueda de una poética propia partiendo de creaciones ya existentes. **Rendering**, de hecho, es descrita como una *ricomposizione*, y, por eso, en el programa de mano figura la autoría compartida entre Berio y el autor del material original: **Schubert**. Y es que Berio, en este caso, no se limita a citar una melodía o a introducir un fragmento de otra obra, sino que realiza toda una reconstrucción del proyecto de sinfonía en el que Schubert estaba inmerso cuando falleció prematuramente en noviembre de 1828, con solo 31 años.

Según explica el propio Berio, «durante las últimas semanas de su vida, Franz Schubert creó numerosos bocetos como preparación para la *Décima Sinfonía*. Estos bocetos son bastante complejos y de gran belleza, y aportan indicios de los nuevos caminos que estaban alejando a Schubert de la influencia de Beethoven. [...] Los bocetos, tal como los dejó Schubert en una forma casi pianística, presentan ocasionales indicaciones instrumentales, pero a veces están casi taquigrafiados y tuve que completarlos, sobre todo en las partes internas y graves. La orquestación sigue la de la *Inacabada*, y si bien se ha conservado el evidente colorido schubertiano, hay breves episodios en el desarrollo musical que parecen inclinarse hacia Mendelssohn, y la orquestación lo refleja de forma natural. Además, el clima expresivo del segundo movimiento es impresionante: parece estar impregnado del espíritu de Mahler».

Dicho esto, el ejercicio de reconstrucción que Berio realiza en *Rendering* no tiene nada que ver con otras muchas reconstrucciones que solemos escuchar habitualmente en las salas de conciertos, como el *Réquiem* de Mozart que completó su alumno Süssmayr, la *Sinfonía nº10* de Mahler en la versión del musicólogo Deryck Cooke (completada y corregida por Berthold Goldschmidt y David y Colin Matthews en un proceso de casi cuatro décadas) o la *Novena Sinfonía* de Bruckner, cuyo cuarto movimiento, reconstruido por un equipo liderado por Nicola Samale, Euskadiko Orkestra interpretó a principios de 2020. Todos estos ejemplos tienen un objetivo bien establecido: ser lo más fiel posible al estilo de su autor, imitando sus técnicas y gestos compositivos hasta en la última coma, de forma que la obra se pueda escuchar como si se tratase de una creación completa de Mozart, Mahler o Bruckner. Sin embargo, en *Rendering*, lo que Berio trata de hacer es «restaurar» los bocetos de Schubert, no

reconstruir ni finalizar la sinfonía; y, para que entendamos su acercamiento, nos apunta a la restauración moderna de frescos, cuyo objetivo es revivir los antiguos colores sin intentar disimular el daño causado por el tiempo, dejando a menudo espacios vacíos en la pintura.

«En los espacios vacíos entre un boceto y el siguiente se crea una especie de tejido conectivo constantemente diferente y cambiante, siempre pianísimo y distante, entremezclado con reminiscencias del último Schubert (*la Sonata para piano en si bemol*, el *Trío para piano en si bemol*, etc.) y atravesado por texturas polifónicas basadas en fragmentos de los mismos bocetos», explica el compositor italiano. «Este “cemento” musical comenta las discontinuidades y los vacíos que existen entre un boceto y otro, siempre anunciado por el sonido de una celesta, y debe interpretarse “casi sin sonido” y sin expresión». El efecto que logra Berio es de una extraña pero cautivante belleza poética, y el constante saltar entre el Romanticismo incipiente de Schubert y la abstracción vanguardista de la segunda mitad del siglo XX, erigieron a *Rendering* en una de las obras más emblemáticas del posmodernismo musical desde que Nikolaus Harnoncourt la estrenara en 1989 al frente de la Orquesta del Concertgebouw de Ámsterdam.

Nuestra velada finaliza con dos páginas de **Richard Strauss**, la primera de ellas relacionada nuevamente con la noche y también con Schubert, ya que Strauss compuso ***Los momentos del día*** por petición de la Sociedad Schubert de Viena, que la estrenó durante el centenario de la muerte de su patrón en 1928. Las cuatro canciones que componen esta pequeña cantata para coro masculino y orquesta están basadas en textos del poeta romántico Joseph Eichendorf, y la última de ellas, ***La noche***, Norman del Mar la describe como «un nocturno apacible y atractivo que comienza con un solo de trompa y tiene una sección central repleta de cantos de pájaros y una orquestación atmosférica. La obra termina con una repetición de la última estrofa, similar a un himno».

Escucharemos, por último, la suite de la ópera ***El caballero de la rosa***, que Strauss compuso entre 1909 y 1910 y con la que dio el portazo definitivo a la etapa modernista de la que surgieron *Salomé* (1905) y *Elektra* (1908). En el *Caballero de la rosa*, ambientada en la Viena en el siglo XVIII, el vals es el anacrónico protagonista de toda la partitura, y sus hermosas melodías, la elegancia en la adopción de un estilo antiguo y la belleza de la orquestación, hicieron de ella un éxito en su estreno y una de las creaciones más populares de Strauss durante su vida. La música de la ópera se adaptó en varias ocasiones, incluso para acompañar una película muda (*Der Rosenkavalier*, 1925) de Robert Wiene, que poco antes había dirigido el célebre filme *El gabinete del doctor Caligari*. Pero Strauss solo quedó plenamente satisfecho con la suite que Artur Rodzinski, director de la Orquesta Filarmónica de Nueva York, realizó y estrenó junto a esta orquesta en 1944, y que es la que se interpretará hoy.

MIKEL CHAMIZO

HURRENGO ABONU KONTZERTUA • PRÓXIMO CONCIERTO DE ABONO

MAHLER

Ekaina 3 junio | 19:30



SARRERAK / ENTRADAS


10€ < 40€

euskadikoorquestra.eus
baluarte.com
Leihatila - Taquilla



EUSKADIKO ORKESTRA

24 - 25



ALDAVE | BRAHMS | BERLIOZ | MOZART | BRUCKNER | GLANERT | MAHLER
PROKOFIEV | BEETHOVEN | DVORAK | SCHUBERT | SCHUMANN
SIBELIUS | SCRIBIN | STRAUSS | SZYMANOWSKI

Mark Simpson · Baiba Skride · Pinchas Zukerman · Denis Kozhukhin · Christoph Sietzen
Daniel Müller-Schott · Orfeón Pamplonés · Juan Laboreria · Suhar Korua · Christoph-Mathias Mueller
Dinis Sousa · Lukasz Borowicz · Juanjo Mena · Kristiina Poska · Stanislav Kochanovsky



SARRERAK / ENTRADAS

A partir de **10€** -tik gora

Tarifa bereziak: konsultatu deskontuak / Tarifas especiales: consultar descuentos

PAMPLONA / IRUÑA - Baluarte / 19:30

euskadikoorkestra.eus - 943 01 32 32